

Mikel Urdangarin



Zornotzan jaioa baina gasteiztarra adopzioz, Mikel Urdangarin azken urteetako euskal kantautorerik oparoenetakoa da. Ahots ederra eta kalitate handiko 11 disko sinatzeko gai den adimena. Bere azken proiektua 'Margolaria' da, izen bereko diskoa emango duen dokumentala, edo alderantziz da?

Mikel Urdangarinek kontzertu oso berezia eskainiko du Vital Fundazioa Kulturunean. Publikoa ez da bertan izango, baina bera ekainaren 13an, larunbata, 21:00etan, hemen izango duzu zain, etxetik mugitu barik bere zuzeneko onenaz goza dezazun.